



# Erritmoz beteko da Lasarte-Oria

Maiatzaren 17an, Euskal Herriko 10 talde II. Batukada Topaketan



## 4 MUSIKA Javier Krahe, Hodeiertz abesbatza eta musika-jaialdia

Brigidatarren komentuan Tolosako Hodeiertz abesbatza egin zuten kantuan ostitral ilunabarrean, Zulo aretoan Javier Krahe kantautorearen kontzertuaz gozatzeko aukera izan zen gauetan eta Elebeltz Topagunean beriz, Despervicio, Hurto, Milaka Kolore, Jokin Skywalker, Txuki eta Amato Maitia Sound Antisystemen eskutik musika jaialdia egin zen larunbatean.

## 5 ASIA Familian primeran gozatzeko jolasak

Itakun kultur elkarteak familiariei zuzendutako ekimena jarri du martxan, "Jolasen altxorra". 4-7 urte bitarteko familiak, guraso, seme, aitona amonak... parte hartu dezakete honetan. Jolasen oharak balio eta ezagutzen transmisioa egiten da eta horregatik garrantzitsuak dira haurren heziketarako. Hiru saio egingo dira, Okendo plaza, Basaundi bailaran eta Zabaleta auzoan. Ez dago izena eman beharrik. Hitzorduetara hurbildu eta gozatzeara besterik ez dago.

Ostiralean Euskal Herriko II. Batukada Topaketa aurkeztu zen Okendo plazan. Dinbi Banda batukadak Udalen laguntzaz antolatzen duen jaialdian Euskal Herriko 10 talde izango dira. Maiatzaren 17an jai giroa nagusi izango da herriko kaleetan zehar.

Larunbatean, maiatzaren 17an, Lasarte-Oria dantzan jarriko dute berriro ere. Bigarren urtez, Euskal Herriko Batukaden Topaketa ospatuko da gure herrian. Dinbi Banda taldeko kideak, Zo-Zongó! taldeko Odei Astibia eta Udal ordezkariak aurkeztu zuten bigarren Topaketa.

Berita Nogales, Kultura batzordeko buruak, Dinbi banda talde zoriandu zuten egindako lanarengatik, "iaz eronka luzatu eta ederki eutsi diote. Ea hurrengo urtean topaketa handiagoa egiten den".

### Hamar talde

Mikel Olaiz Dinbi Banda taldeko kideak azaldu zenez, "aurten Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaia 10 talde izango dira Topaketan. Arantzatxo bat dugu Iparraldeko talderik ekarri ahal izan ez dugulako".

Era honetara, Iruñeako KaleanBatu, Gasteizko Kumbalaye eta Beriba, Zornotzako Zaparrada, Bilboko Batukale, Otxandiko BatukOtx, Urnieatiko BuruntZanTzan, Donostiako Taupada, Zo-Zongó! taldea eta Dinbi Banda taldea



Dinbi Banda taldeko kideak, Zo-Zongó! taldeko Odei Astibia eta Udal ordezkariak II. Batukada Topaketan aurkezpenean.

izango dira Lasarte-Oriako kaleak erritmoz betetzen.

### Egitarua

Agerraldian azaldu zutenek, lehen orduan hainbat mural marraztuko ditu herriko Mora marrazkilariak, "Okendo plaza apaintzeko".

Goizeko 11:00etan taldeak herriko auzoetan barrena ibiliko dira. 12:30ean, guztiak Okendon bildu eta erdialdean, poteoa izango da Eoniar elektrotzarangaren laguntzarekin.

14:30ean, taldeek bazkaria dute eta indarrak berreskuratu ostean, 18:30ean, ekitaldi nagusia izango da Okendo plazan.

Honetan talde bakoitzak 10 minutuko emanaldia eskainiko du eta amaieran, guztiak batera Topaketako

berrikuntzetako bat aurkeztuko dute.

Eguraldi txarra eginez gero, ekitaldi nagusia Loidi-Barren pilotalekuan izango dela aurreratu zuten.

### Berrikuntzak

Dinbi Bandako kideak aurkezpenean adierazi zutenek, aurretik berrikuntza izango dute Topaketan.

Batetik, haurren tailerra izango da goizean. "Iaz hurrentzako tarte bat behar zela ikusi genuen. Musical 72-ren instrumentu eta birziklatutako beste batzuekin haurrekin tailertxo bat egingo dugu. Etxetik ere ekarri ditzakete tresnak. Gainera saiotxo bat ere egingo dugu 12:30ak aldera", adierazi zuten.

Bestetik, ekitaldia nagusiarri amaiera emateko Zo-Zon-

gó! taldeko Odei Astibia bereziki topaketarako sortutako erritmo bat joko da. "Topaketari amaiera emateko zerbait behar zela ikusi genuen eta horregatik, konposaketa bat sortu dute. Guztiak batzoko ideiarekin egin dute. 170 bat perkusionista izango gara eta zarata ederra egingo dugu", adierazi zuten Astibia.

Azkenik, egunean bertan argazki lehiaketa bat ere martxan jarriko dutela aurreratu zuten, "sari berezia izango du".

Taldeak eskerrak eman nahi izan zizkien, Musical 72 musika tresna dendarri, Gazte irratia eta Italka orrialdeari haien laguntza eskaini izanagatik.

Eta heritarrak egun horretan kalera aterata eta erritmoaz gozatzera gonbidatu zituzten.

**USURBILGO LANBIDE ESKOLA**

**IEFPS USURBIL GLHBI**

**Ate irekiak maiatzaren 10ean eta 17an (larunbatak)**

**Goi-mailako Erdi-mailako HEZIKETA ZIKLOAK**

**Mekanika**

**Elektrizitatea**

**Administrazioa**

**Energia eta ura**

**Magnetismoa**

**Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600 - e-mail: eskola@lhusurbil.com**

## Adituak dio



Ricardo Ortega

## Zergatik bozkatu Europar hauteskundeetan

**H**erriarrok nazka-nazka eginda gaude austeritate politikoa (austerizidioa) inposatu digun Europarekin; pertsonak abandonaturik, pobrezia eta prekaritatea maila izugarrietan jarri, bankuak -beraiek sortutako krisitik- erreskatatzeko zor pribatua publiko bihurtzea eta zerbitzu publikoak murriztea edo/eta pribatizatzea bultzatu dituztenekin; Troikaren Europarekin, azken finean.

Urte luzetan euren interesen araberako Europa eratzten aritu dira, estatuen eta kapitalarena, hain zuzen ere, non gizarte-justizia eta aurrerapena ez diren kabitzen, errotorika hutsen ez bada. Horrelako Europa ez dugu nahi, ez dugu behar, inondik inora.

Gauzak horrela, baten batek pentsa lezake, protesta gisa edo, gure desadostasunaren erakusgarri modura, maiatzaren 25ean ez genukeela bozkatu behar, baina hori hanka-sartzerik handiena izango litzateke; horixe nahiko bailukete oligarkiak eta bere zerbitzura dauden alderdiek: ezkerreko jendea, etxean geratzea, beraien berri ere irabazle izateko (eta gu izorratzen lasai asko segi ahal izateko).

Horregatik, Euskal Herria, gure bizi-kalitatea eta gure seme-alaben etorkizuna bost axola ez bazaizkigu, gure eskubideak suntsitzen jardun dutenei (PP, PSOE, UPyD, ...) txartel gorria erakutsi behar diegu, eta beste-lako eredu soziala eta herrien eta langileen Europa eraiki nahi dituzten hautagaitzetako bati (norberak gustuko denuari: EH Bildu, Ahal dugu, Ezker Anitza, ...) botoa eman.

## Europara begira

**E**uropar parlamentuaren osaketa aukeratu da maiatzaren 25ean. Alderdiek kanpaina hasi berri dute eta datoen egunotan ezagutuko ditugu hautagaiak. Hala ere, herriarren parte hartzean dago kezka. 2009ko hauteskundeetan, estatu mailan, %44,90eko parte hartzea izan zen eta erdikoan, baxuagoa izan zen %41,23.

Kontutan izanda 1987an %68,52ak bozkatu zuela, asko jaitsi omen da herriarrek Europako parlamentuaren osketa ematen dioten garrantzia. 734 kidek osatzen dute eta horietatik Estatu Espainiarrari 54 kide egokitu zitzaizkion 2009an.

Hauteskunde hauetan ordea, herriarrek ohiko alderdiek at beste hamaika aukera dituzte aukeran. Talde ekologikak, ekimen herriarrek...

Aukera zabal hori ondo ezagutzeko, edo bozka zeini omen eratzeko, aditu talde batek garatutako programa bat dabil sare sozialetan bolo-bolo. [www.euvox2014.eu](http://www.euvox2014.eu) da webgunea eta bertan galdetegi bat osatzeko eskatzen da. Ematen diren erantzunen arabera, zert alderdi bozkatu beharko zenukeen esaten ditu.

30 bat galdera dira eta lurraldetasuna, immigrazioa, erakunde publikoen esku hartzerari buruzkoak dira besteak beste. Euskaraz egin daiteke inkesta nahiz eta galdera batzuk ulertzeko bi aldiz irakurri behar diren.

Beraz oraindik bozka nori eman ez badakizue tresna ona izan daiteke. Aldi berean galdereko Europar parlamentuaren zeregina eta estatuetik izan dezakeen eskumena ulertzeko ere balio dute.

## Hitz eta pitz

## Ba al duzu Europako hauteskundeetan bozkatzeko ohiturarik?



## Arantxa Errasti

Beti bozkatzan dut, edozeinetan dela ere. Gero kezaketzeko aukera izateko beharrezkoa da bozkatzeko. Jendeak urrun ikusten du Europa eta ez zaio iruditzen bere bozkak eraginik izango duenik. O r a i n esaten ari dira benetan egoera aldatu nahi badugu agian, bozka ematera ez joatea izango litzatekeela omena. Errebelatu eta "ez zarete ondo ari" esateko.



## Iñaki Zendoia

Bozkatzeko ohitura dut bai. Dena den, Europako hauteskundeetan gaineko informazio falta egon badago, jendeak pentsatuko du ez duela ezertarako balio bere bozkak, baina bertatik etorritzen dira lege asko, nahiz eta estatuek oraindik pisu handia duten. Hauteskundeak hauteskunde, argi dago botere ekonomikoek kontrolatzen dutela Europa eta mundua ere bai.



## Inma San Sebastian

Bai, baina egia da hauteskundeak zenbat eta gertuagokoak izan, jendeak gehiago sentitzen dituela. Normala da Europakoetan abstentzioa altua izatea. Aspertuta gaude ingurukoarekin, urrutikoekin pentsatzen hauteskunde moduan... Baina niretzat oso inportantea da bozka ematea. Europako Parlamentuan onartzen baita lege askoren hezurdua.



## Ioritz Iparraguirre

Niretzat lehen hauteskunde europarrak dira eta bai, bozkatzeko dut. Europa gaitziki doala uste dudalako eta herri txikien eskubideak babesteko dituzten hautagaiak badaudela uste dudalako. Europa aldatzea oso zaila den areen, bertan presentzia izatea txarra ez. Hala ere, ulertzen dut abstentzio handia izatea, jendeak urrun ikusten dituelako.



2005ean Eusko legebiltzararen hautaketarekin batera gauzatu ziren.

## Iruditan

## Parte hartzea murriztuz

1987. urtean egin ziren Europar Parlamenturako hauteskundeak. Orduan parte-hartzea Erdikoan %67,09koa izan zen, azken hauteskundeetan berriaz, 2009koetan %41,23koa. Azken datu honek kezkatzen ditu alderdiak. Hiriarrek ez omen dute beharra ikusten hauteskunde hauetan bozkatzera joateko. Beste urte batzuetan udal hauteskunde edo eusko legebiltzarerako hauteskundeekin bat egin du deialdiak eta horrela mantendu omen da parte hartzea. Ikusteko dago 25ean zer gertatuko den.

## Diruz laguntzen duten erakundeak

## Babeslea

LASARTE-ORIA  
UDALA

Txinbarriak ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

## Laguntzailea



## Argitaratzailea:

Tiatkun Kultur Elkartea  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
**943 366 858/943 371 448**  
C-20407557  
Legeko gordailua:  
SSS13/93  
ISSN: 1134-0053  
Inprimategia  
Zeroa Multimedia, S.A.  
Aleak zenbakiko: 7800

## txinbarri

**Eredakzioa:**  
Nerea Ezpigitze, Maider Azumendi, Jon Altuna E.  
[txinbarri@txinbarri.info](mailto:txinbarri@txinbarri.info)  
**Publikitatea eta administrazioa:**  
Arantza Arriola  
[publikitatea@tatakun.com](mailto:publikitatea@tatakun.com)  
[administrazioa@tatakun.com](mailto:administrazioa@tatakun.com)  
**Laguntzaileak:**  
Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Maialu Arriola, Aiger Odriozola, Jose M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpirtate, Edu Galardi  
**Informatikoa:**  
Xabier Amador

GIZARTEA

# Hasi da hauteskunde kanpaina

*Herriko lehen agerpena EH Bilduk egin zuen ostiralean*



Haurrek arratsaldean zehar Europako mapa koloreztatu eta ekitaldiaren amaieran talde-argazkia atera zuten.

TXINTXARRI

Europar Hauteskundeak hilaren 25an egingo dira Euskal Herrian eta dagoeneko alderdiak hasiak dira euren zerrendentzat bozak eskatzen. EH Bildu izan da herrian hauteskunde kanpaina hasi duen lehena ostiralean Okendo plazan eman-dako mitinarekin.

**E**kin diote alderdiek hauteskunde-kanpainari. Datozen bi asteetan buru-belarri ariutuko dira herritarrei eurentzako bozka eskatzu.

Ohikoak izaten dira urtero-urtero merkatu egunean bateko zuten beste zerrendetako hautagaiak jendearekin hitz egin eta iritziak elkartratzeko ikustea, eta aurten

ere izango da halako irudirik maiztaren 25a bitartean.

**EH Bilduren agerraldia**

Hauteskunde kanpaina hasi zuten egunean bertan, ostiralean, Okendo ekitaldi politikoa egin zuen EH Bilduk.

“Herriaren eskubideei BAI, Troikaren Europari EZ” lelopean, Joxean Arregi eta Pablo Barriok hartu zuten hitza.

Alkateak adierazi zuen Lasarte-Oriaren “Guztiona” marka Europara eraman eta bertan gailentzen ikustea gustatuko litzaiokeela.

Hauteskundeetan parte-hartzeko deia zabaldu eta Espainiaren parte izatekiko Europaren zati izatera igarotzeko aukera bakarria EH Bildurena dela esan zuen.

Joxean Agirre EH Bilduko kideak bere aldetik, ezinbestekotzat jo zuen Josu Juaristi hautagaiaren ahotsa Europako parlamenturaino iristea “era-

bakitzeko eskubidea eta preso-oen eskubideen defentsa” egiteko.

Horretaz gain, besteak beste, programan “politika fiskal aurrerakoa, ingurugiroarekiko errespetua, justizia soziala eta pertsonen ongizatea” bultzatuko dituztela esan zuen Agirrek. “Agintera iritsi izan garenean frogatu dugun bezala, herritarrek hitza ematen digutenean, bete egingo dugu”, azpimarratu zuen.

**Hitzaldia asteazkenean**

Asteazkenean berriz, Julen Arzuaga Eusko Legebiltzarreko parlamentariak eta Iria Rodriguez EH Bilduren zerrendako kideak “Migrazio Politika eta Segurtasuna” hitzaldia eskainiko dute Villa Mirentxun arratsaldeko 19:30etatik aurrera.

Gainontzeko alderdiek ere datozen egunotan egingo dituzte agerraldiak.

UDALA

**Ohiko Udalbatzarraren asteartean**

Asteartean, 18:30etik aurrera, Ohiko Udalbatzarraren izango da Udaletean.

Honetan bi gai jorratuko dituzte batzarreko kideek. Batetik Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria, eta Festak batzordearen ohiko bilkurrean ordua aldatzeari buruzko Batzordeburuaren proposamena eztabaidatuko da eta Udaleko EAJ alderdiak aurkeztutako “Euskal Selektzioen nazioarteko ofizialtasunari buruzko mozio instituzionala” aztertuko da.

Jarraian, alderdien galdera eta erregun tranda izango da eta herritarrek ere berehala edo proposamenak aurkezteko tartera ere izango dute.

SAN PEDRO JAIAK

**Kartela erabakitzen lagundu**

2014. urteko San Pedro jaierako Kartel Lehiaketara 30 lan aurkeztu dira aurten eta Lasarte-Oriako udalak herritarren iritzia zein den jakin nahi du, herriko festetako kartela zein izango den hautatzeko. Kartelak [www.lasarteoria.com](http://www.lasarteoria.com) eu orrialdean ikusgai daude.

Bozka eman nahi duenak bi bide ditu, batetik [albisteia.lasarte-oria.org](http://albisteia.lasarte-oria.org) orrialdean edo [sanpedrojaiak@lasarteoria.com](mailto:sanpedrojaiak@lasarteoria.com) eu helbidera mezu bat bidaliz. Maiatzaren 26ra arte, hau barru, dago bozka emateko aukera

Behin-beitiko erabakia Gazteria eta Festak batzordeak hartuko badu ere, bozka zati hauek kontutan hartuak izango dira.

Batzordeak herritarrek animatu nahi ditu aukeraketa honetan parte hartzera.



SAN PEDRO JAIAK

**Haur danborradan izena emateko azken egunak**

San Pedro jaietan haur danborradan parte hartu nahi duten 5 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoek ostegunera arte dute izena emateko.

Behar hartu nahi duen guztiak izena emateko fitxa bete behar du GAZTEENTZAK Informazio Bulegoan, Gaztelekuan, asteartetik ostegunera 12:00etatik 21:30era.

Izena emateko epea lixi ostean zozketa egingo da maiatzaren 19an, 12:00etan Manuel Lekuonako hitzaldi aretoan. Emaitza zerrenden bidez emango da ezagutzera maiatzaren 22an, kultur-etekoko 2. solairuan dagoen iragarki-taulan.

# Euskara erakundeetan indartu nahian

**U**dalTop Soziolinguistika, udaletako euskara-zerbitzuen topaketa berri ere gurean izango da. Ostegun eta ostiralean Euskal Herriko euskara teknikari, zein soziolinguistikoei “Erabiltzeko planak: elkarrekin berritzen” topaketa parte hartuko dute.

Honetan herri erakundeen barruan euskararen erabilera zabaldu eta, aldi berean, trintzeko eratan diren planak izango dira hizpide.

**Hitzaldiak**

UPV-EHU edo Mondragon Unibertsitateko HUHEZI-ko soziolinguistika adituek, UEMA, Gipuzkoako Foru Aldundi, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza eta Kultura Sailatako kideek zein Udaletako teknikariak eskainiko dituzte hitzaldiak.

Udaletako esperientziarik edo unibertsitate eta soziolin-



Euskara teknikari zein soziolinguistikak bilduko dira bi egunez Lasarte-Orian.

guistika klusterrak egingandako azterketak aurkeztuko dituzte topaketan.

Hala nola, Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzuko burua Iñaki Arruti Eibarko Junkal Txurrua teknikariarekin batera “Arduradun politikoak linguistikoki ahalmentzeko edabe magikoaren bila:

Eibarko eta Lasarte-Oriako udaletako errezetak” mintzaldia eskainiko du ostegun arratsaldean.

Eronkak eta hobekuntzak ere aztertuko dituzte ostiralean eta topaketari amaiera emateko “nola berritu euskara erabiltzeko planak elkarrekin?” talde-lana egingo dute.

MUSIKA ESKOLA

**Aurrematrikula egiteko azken egunak**

2014-2015 ikasturtean Lasarte-Oriako Udal Musika Eskolan izena eman nahi duenak azken egunak ditu hauek, maiatzaren 16an amaitzen baita epea.

Plaza baten eskubidea egiterakoan, 40 euro ordaindu beharko dira Udalak horretarako ezarriko duen kontu korrontean, eta dagokion matrikula egitean itzuliko zaio diru-kopuru hori herritarri. Eskara egin eta gero matrikula gauzaten ez duenak ez du ordaindutakoa berreskuratzeko eskubiderik izango.

Aurrematrikula Manuel Lekuona kultur-etxean egin behar da, goizeko 9:00etatik 13:00etara.

ATLO

**Danborradaren liburua eskuragarri**

ATLO, Lasarte-Oriako Danborrada elkarteak, bere historiari buruzko liburua argitaratu du. Honetan danborradaren garai desberdinak datu eta argazkiak aurki daitezke. Liburuari atxikia argazkien CD bat.

Liburua eskuratu nahi duten herritarrek gaurtik maiatzaren 23a arte dute epea. Lasarte-Oriako DV-ko korrespondentian lortu ahal da liburua atselehentzati ostiralean, 18:00etatik 19:00etara. Libururak 22 euro balio ditu eta Kutxabank-eko 2095-5048-11-1071446743 kntu korronte zenbakian egin behar da diru-sarrera.

Informazio gehiago, [www.tamborradalasarteoria.org](http://www.tamborradalasarteoria.org) orrialdean dago eskuragarri.



Tolosako Hodeiertz abesbatzak kontzertua eskaini zuten Brigidatarren komentuan.



Javier Krahe kantautore madrildar alternatibo ezaguna ikusteko Zulo aretoa erabat bete zen ostiralean.

## Denetariko musika

### Kontzertuak izan dira Zulon, Elebeltzen eta Brigidetan

*Hiru musika emanaldiz gozatzeko aukera izan zuten herritarrek ostiral eta larunbatean. Brigidatarren komentuan Tolosako Hodeiertz abesbatzak egin zuten kantuan, Zulo aretoan Javier Krahe kantautorearen kontzertuaz gozatzeko aukera izan zen eta Elebeltz Topagunean berriz, Despervicio, Hurta, Milaka Kolore, Jokin Skywalker, Txuki eta Amatxo Maitia Sound Antisystemen eskutik musika jaialdia egin zen.*

TXINTXARRI

Asteburuan ez da musika proposamen faltarik izan. Ostiral ilunabarrean Danok Kide elkarteak antolatutako IX. Musika topaketen barruan, Tolosako Hodeiertz abesbatzaren emanaldia izan zen ikusgai Brigi-

datarren komentuan.

Jende asko hurreratu zen Enrique Azurza zuzendariaren esanetera aritu zen abesbatza entzuterata eta ia gutuz bete ziren elizako eserlekuak.

Ostiralean bertan, baina gauaz, Javier Krahe kantautore madrildar ezagunaren emanaldia izan zen. "Los diez de

ultimas" diskako lanak eskaini zituen ohi bezala letra ironiko, errima burutsu eta doinu samurrekin. Bete-beteta zegoen Zulo Aretoa.

#### Elebeltzeko jaialdia

Cuztira sei talde edo norbanako oholtzaratu ziren. Lasarte-Oria eta Hernaniko kidez osaturiko Despervicioen rock doinuek eta Lakabeko Hurto taldearen punk estiloak ireki zuten jaialdia eta festa gaueko ordu dikietara arte luzatu zen Milaka Kolore, Jokin Skywalker, Txuki eta Amatxo Maitia Sound Antisystemen musikarekin.



Elebeltz Topagunean kontzertuez gain, goizean jardunaldi internazionalistak izan ziren.

## Ibon Fernandez Iradiren askatasuna eskatuz, giza-katea Baionan

Giza-katea egin zuten larunbat goizean Baionan 350 bat lagunek esklerosi anizkoitza pairatzen duen preso lasarteoiriararen askatasuna eskatzeko.

Lasarte-Oriatik autobus bat antolatu zuten Lapurdiko hiriburura joateko eta bertan izan zen Pablo Barrio alkatea beste hainbat herritarrekin batera. Norbanako asko autoz hurbildu ziren.

Herriko etxetik suprefeturaraino iritsi zen giza-katea eta aurrez aipatutako udal ordezkarietz gain, ekimean parte hartu zuten EH Bai, LAB edo Baterako ordezkariak. Sylvain Alaux diputatu sozialista eta giza eskubideen aldeko elkarteetako hainbat kide ere bertaratu ziren Baionan.

Herrirako ordezkariak Giza Eskubideen aldarrikapen

unibertsala lantzen parte hartu zuten Rene Cassin zena-  
ren etxe aurrean egin zituzten adierazpenak.

Epaileak preso lasorteirararen zigorra eteteko eskaera gaur bertan aztertu du. Horregatik, Ibon Fernandez Iradi aske uzteko eskatu zioten asteburuan legearen araberako baldintza guztiak betetzen dituela argudiatuz. Eguneko egoera politikoa eta

balore demokratiko eta humanitarioak ere kontuan izatea eskatu zuten.

Izan ere, esklerosi anizkoitzak "osasun arloko profesionalen jarraipen iraunkorra" exijitzen duela adierazi zuten senide eta lagunak eta hori espetxean ez dela posible.

Esklerosi anizkoitzaren sintomak, bere kasuan, aparatuz digestiboarekin lotuta daude-

nez, elikadura egokia behar du eta espetxea "infekzio foku" eta "estres sortzaile" izanik, haren askatasuna eskatzen dute gaitza ahalik eta hobekien sendatzen lagutzeko.

Bestealde, pilotakadaz pilotakada ekimena egin zen larunbat goizean Loidi Barrengo pilotalekuan eta hamar bat lagun aritu ziren pilota astintzen presoaren eskubideen alde.



Loidi Barrengo frontoian egin zen "Pilotakadaz pilotakada" ekimena larunbatean, dispersioaren kontra.



Ibon Fernandez Iradi presoaren zigorra eteteko eskariari gaur emango dio erantzuna Auztegiak.

## "Jolasen Altxorra" familientzat

### Jolasen ikastaroa antolatu du Ttakun K.E.-k

Alaba, semea, aita, amona, aitona, gurasoak... guztiek batera jolasteko aukera emango du Ttakun Kultur elkarteak. "Jolasen Altxorra" ekimena martxan jarriko du eta honetan, familien arteko harremanak estutu edo haurrei baloreen transmisioa egiteaz gain, euskarak ere izango du bere lekua.



Haur, zein helduek parte hartzeko jolasak egingo dira hiru saioetan.

#### TXINTXARRI

Jolasteko ohituraren sustaizailerik gurasoak direnez, "Jolasen Altxorra" familian jolasteko saioak antolatu ditu Ttakun K.E.-ko aisia sailak.

Jolasak ezagutzak eta baloreak oharkabean transmititu eta jasotzeko tresna direla aipatu dute antolatzaileek eta ezagutza horien artean, hizkuntza erabilerari arreta berezia jarri zaiola azpimarratu dute. Ondorioz, saioak euskaraz izango dira.

"Era honetara, familien arteko hizkuntza erabilaren eragile izateko asmoa du ekimenak," adierazi dute Ttakunek lagunek.

5-6 urte arteko haurrak dituzten familiei zuzendutako jolasak izango dira.

Hala ere, antolatzaileek aipatu dutenez, "4 eta 7 urteko haurrak ere ongi etorriak izango dira".

Jolasei dagokionez, denetarik izango dela aurreratu dute, abestiak, harrapaketa jolasak...

#### Hiru saio

Proba modura hiru saio egingo dira.

Hitzorduarik Okendo plazan maiatzaren 15ean, osteguna 17:00etan; Basaundi bailaran, maiatzaren 22an, 18:00etan eta Zabaleta

azooan, maiatzaren 29an, 18:00etan izango dira. Azken hau Zabaletako festen barruko ekintza izango da.

Aipatu dutenez, saio bakoitzak gutxi gora behera 45 minutu iraungo du.

#### Izena ematerik ez

Saioetan parte hartzeko ez da izenik eman behar, "Okendo plazara, Basaundi edo Zabaletako plazara gerturatzeko basterik ez dute familiek".

Antolatzaileek 4-7 urte arteko familiei gonbida egingo die saioetara hurbildu eta parkeko eguztan eta herriko beste familiekin batera gozatu eta jolastera.



Xirimirin egin zen lehenengo saioa, hurrengo Arrieskaltetan izango da.

## Egañarekin berrikerian

### Bertsolaritza gertutik ezagutzeko aukera izan zuten herritarrek

Andoni Egaña bertsolariarekin jolasen arietzeko aukera izan zuten ostegun iluntzean ekimenean parte hartzeko izena eman zuten herritarrek.

Gipuzkoako Bertsozale Elkarteak, Ttakun K.E. eta Earra! Bertso eskolak, elkarlanean antolatutako bertso-solasaldi ekimenaren lehenengo saioa izan zen.

Andoni Egañak zaleen galderak erantzun eta bertsolaritzan bizitako esperientziak kontatu zituen lagun artean bezala. Parte hartzaileen artean, bertsoak kantatzera ere animatu ziren batzuk.

Bertsolariak hainbat esperientzia kontatu zituen eta beste bertsolari batzuen lanaz ere mintzatu zen bertarutakoan galderari erantzunez.

Saioa luzatu egin zen 22:30ak arte eta amaitezko beste bertsolariak.

Saioa ere, beste hiru saio egingo dituzte datozen asteetan.

Orokorrean pozik agertu ziren herritarrek halako aukerari izatearekin eta hurrengo saiorako etxeko lanez gain galdera gehiago ere emango zituztela aipatu zuten.

## Pirinioak lotune

Cambo Iturri elkartearen Jauzo-mintegien baitako hitzaldia izango da osteguneko Villa Mirentxun.

Kasu honetan Enrique Ayerbe herritarrek eskainiko du eta Euskal Herria erreferentzia piriniararen testuinguruan kokatuko du, alderdi kulturalak zein historiko-geografikoak izango diu hizpide herriko geografoak.

Hori azalduta, Pirinioak lotune izan ditzaketen erkide-

goen arteko harremanaz hitz egingo du eta hauek elkarrekin, nortasun piriniarra indartuz, Europan esku-hartzeko izan dezaketen gaitasunaz.

Hitzaldia 19:00etan izango da eta iraupena bataz beste 21:00ak arte aurreikusiten dute antolatzaileek.

#### Datik gabe

Hurrengo hitzaldien eguna zehaztu gabe dute oraindik bi hizlarien agendak direla eta.

Ekainean Villa Mirentxun Josu Erkoreka jaurilaritzako bozeramailea izango da. Honek Euskadieren lekua Europar Batasunean zein den azalduko du.

Irailean berri, Urnietao Lekaiok kultur etxean Daniel Innerarity filosofoa izango da krisi ekonomikoak ardatz hartutako hitzaldia ematen.

Hauetan parte hartzeko deia luzatzen zaie herritar guztiei.



Xabier Ezeizabarrenak eman zuen lehenengo hitzaldia.

ERABAKITZeko ESKUBIDEARI BAI

Maiatzak 14 HITZALDIA

Villa Mirentxun 19:30ean

"Migrazio Politikak eta Segurtasuna"

Julen Arzuaga eta Iria Epaltza

## ATLETISMOA.



## Primerako txapelketa

**L**OKEko atleta gazteek ederki hasi dute aire libreko denboraldia. Lehengo asteburuan, maiatzaren 4 eta 5ean, Donosti eta Tolosan ospatu ziren Gipuzkoako txapelketetan izan ziren lehiatzaile eta hainbat titulu eta domina eskuratu zituzten.

Proba luzeetan, Itoitz Rodriguezek garaipena lortu zuen 400 m. proban eta Asier Olmosek brontzekoak lortu zuten 600 m. lasterketan.

Abiadura probetan, Yeray Veroniz jubenila 100 m. eta 200 m. probetan irabazle izan zen.

Maria Eugi eta Idoia Olasagasti juniorak 100 m. proban bigarren eta hirugarren izan ziren eta Espainiako txapelketa-rako gutxiengoa lortu zuten.

Jauzi probetan, altueran Eneritz Bustok garaipena eta Ane Galardik bi zilarrezko postu eskuratu zituen jauzi-hirukoitza eta luzera probetan.

Jaurtiketa probetan ere fin ibili ziren Maider Rekondo

eta Oihana Igariz juniorrak eta Amaia Harto kadetea. Juniorrek hiruna domina lortu zituen eta Hartok aldiz, bi.

Rekondo pisua eta disko jaurtiketan lehen postua eta jabalinan bigarren. Igariz, lehen postua jabalina eta pisu eta disko jaurtiketan bigarren. Hartok berriz, brontzeko bi domina lortu zituen jabalina eta disko jaurtiketa probetan.

## Hegaldia Bakura

Itoitz Rodriguezek 400 m. lasterketan 48,39ko denbora egin du asteburuan Valladoliden. Hortaz, Bakun, Azerbaijanen egingo den Europako sailkapen edo trial-ean izango da Nanjing (Txina) Gazteen Olimpiadarako txartelaren bila.

Jubenil mailako Euskadiko Errekor berria ezarri du eta lehenengoz nazioartean lehiatzeak aukera izango du maiatzaren 31 eta ekainaren 1ean.

## TENISA.

## Inko Mugika garaile ATG txapelketan

6-1 eta 6-1eko emaitzaz gailendu du Gabriel Zubillaga

**Amaitu da Lasarte-Oriako ATG txapelketa. Martxoan hasi zuen ibilbidea eta larunbat arratsaldean eman zioten amaiera Michelineko kirolguneko pistetan. Inko Mugikak irabazi du txapela Gabriel Zubillagaren aurrian, eta Quick finalean berriz, Borja Etxarrik erraz menderatu zuen Jon Iruretagoyena 6-0 eta 6-1eko emaitzaz.**

## TXINTXARRI

**A**TG (Aficionados al Tenis de Gipuzkoa-Gipuzkoako Tenis Zaletuak) Gipuzkoako mailan txapelketak egiteko asmoa duen elkarte da eta Lasarte-Oriako torneoaz zirkuitu horren barnean kokatuta dago.

Aurteangoan Inko Mugika izan da garaile Gabriel Zubillagari 6-1 eta 6-1eko emaitzaz irabazita. Egindako lanaz harro, ezpain arteko irribarre marraztuta zuen sari-banaketan uanean: "Finala uste baino errezago irabazi dut, Gabriel oso tenislarri borrokalari da, ez du pelota bat galdutzat ematen eta banekien gogora



Gabriel Zubillaga, Borja Etxarri, Jon Iruretagoyena eta Inko Mugika garaileak.

izango zela eta ondo jokatu beharra neukala irabazteko. Zorionez, hala egin dut eta partida borobilba atera zait".

Finalaren horren erraz irabaztearen gakoan non egon ote den galdetuta, bere jokorengan izan duen "segurtasuna" aipatu du Mugikak: "Sendo jokatu dut, eskuarekin bikain erasoan, bereziki eskubi gurutzatutaren gogor astindu dut pilota eta ondorioz, abiadura azkarrean iristen zitzaizkion Gabrieli. Nik uste gakoa nire buruarengan izandako kon-

fiantza izan dela, oso pozik nago".

Azkenik, antolakuntzarantz hitz onak izan zituen txapeladunak: "ATGko zirkuitu guztian bezala, Lasarte-Oriakoan ere antolaketak bikaina izan da, ez dut inongo kezarik, giro ona izan dugu eta parte-hartzea handia izan da".

## Quick finala

Bestalde, "Quick" txapelketa finalen Borja Etxarrik eroso, 6-0 eta 6-1, menderatu zuen Jon Iruretagoyena.

## IGERIKETA.



## Benjamin eta alebiren KLZ-ko 5. jardunaldia

**B**uruntzaldea IKTKo igerilari-eriek ez dute astedenik hartzen. Asteburua jian eta asteburua etorri lehiatzaile baita-biltza Borja Apeztegiaren neska-mutilak.

Asteburu honetan gazte-txoen txanda izan da, alebin eta benjaminena hain zuten. Denera Buruntzaldea IKTKo

60 bat igerilari aritu ziren lehiatzaile eta lagunen animo artean larunbat arratsaldeko KLZ-ko bosgarren jardunaldia.

100m, 200m eta 400m estiloetan, 50 eta 100 metro tximeleta proban eta erreleban aritu ziren igerilari gazteak.

Besteak beste, Tolosa, Hernani eta Ordiziako neska-mutilak ere egin zuten igerian.

Bestalde, Gipuzkoako Selektzioarekin Tarbes-en (Frantzia) aritu zen Iñigo Ibarburuk 50m tximeleta frogan 17 urtekoen Euskadiko errekorra ezarri zuten 26:06 eginda.

## LABURRAK.

## Bazpiko gazteak primeran

Bazpi txirindularitza eskolako kideak errepidean fin dabilta. Maiatzaren 3an, hiru probetan izan ziren eta bitan taldeko kideak izan ziren podiumean.

Zumaiaiko saria izan zuten alebin eta infantilek. Honetan Asier Pozo eta Beñat Caebayedalebinak lehen eta bigarren postuan izan ziren podiumean. Lehen postuetatik gertu, laugarren, Iñaki Errazkin izan zen. Xabier Elosegui infantilak bere mailako podiuma osatu zuten, hirugarren postua lortuz.

Kadeteak berriz, Zestoako Gurutzeaga proban izan ziren lehiatzaile. Honetan, Luken Carbayeda bigarren izan zen.

Eta jubenil mailan Lazkao Gipuzkoako klasika izan zen. Jon Ander Unanue izan zen taldeko hoberean bederatzigarren postuan.

## Gomez Margallo eta Bodegas podiumetan

Maiatzaren 4ean, III. Kros Berdea lasterketan Raul Gomez Margallo herritarra irabazle izan zen. 430 korrikalarik parte hartu zuten proban eta bi txandatan atera ziren korrikalariak. Lehengorren 15 km. ibilbidea egin zuten eta bigarrenean, 5 km.

15 kilometrotako lasterketa buruan izan zen Raul Gomez ibilbide guztian eta azken metroak bakarrik egin zituen. Raul Tejado herritarra ere podiumetik gertu ibili zen, laugarren izan zen eta 5 kilometrotako proban, Antonio Mazok ere postu bera lortu zuen.

Larunbatean, berriz, Bermeoko Triatloia izan zen. Emakumezkoen mailan, Pili Bodegas herritarra bigarren postuan izan zen. Igeri 750 metro egin beharko zituzten triatletak, bizikletan 24 kilometro eta korrian 5 kilometro.

## Agenda

Asteazkena 14, 19:00etan, Manuel Lekuona Kultur-etxean



### Txakurrak hazi eta hezteko jardunaldiak

"Jakin beharrekoa txakurra eduki aurretik!" jardunaldien lehen saioa izango da. Honetan hizlariak ezagutu eta haien kezak plazaratu ahaliko dituzte herritarrek. Saio hau librea da. Hurrengo saioetan txakurren hazkuntza, hezkuntza metodoak, jokabideen azterketa, etab. jorratuko dira. Izena eman behar da saio hauetan parte hartzeko, udaletxe berriko 4. solairuan, 9:00etatik 13:30etara edo posta elektronikoki bidez, [ingurumena@lasarte-oria.org](mailto:ingurumena@lasarte-oria.org).

#### TRUMOI TABERNA

Larunbata 17, 22:30etan  
Lasarte-Oriako Txoni & JulenK DJ-aren saioaz gozatzeko aukera.

#### OKENDO PLAZA

Igandea 25, 11:30etan  
Marmitako txapelketa egingo da. Izena ematea, Gure Etxea tabernan edo elkarteetan, maiatzaren 21a baino lehen.

### Hitzaldia

#### VILLA MIRENTXU

Osteguna 15, 19:00etan  
Enrique Ayerbek Euskal Herria erreferentzia piriniarren kokatu eta honen garrantziatz mintzatuko da.

### Gure esku dago

#### VILLA MIRENTXU

Ostirala 16, 22:00etan  
Joseba Tapia herritarren kontzertua izango da. Sarrerak, 8 euro. Jalgi Kafentzokian eskuratu daitezke.

## Lasarte-Oria

### Ipuin-kontalaria

#### MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Asteartea 13, 18:00etan  
6-8 urte bitarteko haurrentzat ipuin irakurketa izango da.

### Musika

#### ZULO ARETOA

Ostirala 16, 22:00etan  
Capsula eta Rolling Dice taldeek kontzertua eskainiko dute. Ostein, Nokono DJ-aren saioaz gozatu ahaliko da. Sarrera, aurretik, 8 euro; leihatilan, 10 euro.

#### Larunbata 17, 21:00etan

Metal gaua izango da Karonte, Bloody Motherhood eta Hybrid moon taldeen eskutik. Sarrera, 5 euro.

#### ABEND KAFE ANTZOKIA

Ostirala 16, 23:30etan  
Hernaniko The Zepo eta BeHaxxe Roja taldeen kontzertua. Sarrera, 5 euro.

### Xirimiri 25. urteurrena

#### XIRIMIRI ELKARTEA

Osteguna 15, 20:00etan  
"Munduko Arrozak" gastronomia tailerra burutuko da, Banaiz Bagara eta Txakune-

ko Solaskide taldearen eskutik. Izen ematea [solaskide@ttakun.com](mailto:solaskide@ttakun.com) helbidean egin behar da edo elkartearen dagoen zerrendan, maiatzaren 12a baino lehen.

#### ELEBELTZ TOPAGUNA

Larunbata 17, egun osoa  
"Herri jantzia, garaienaren hazia" formazio mintegiak egingo dira, Askapenaren eskutik.

#### XIRIMIRI ELKARTEA

Larunbata 17, 08:30etan  
Buruntzara mendi irteera antolatuta dute. Ostein, Gure Eskuren ekitaldian parte hartzeko aukera.

#### AMA BRIGITARREN KOMENTU AURREAN

Larunbata 17, 12:00etan  
Mosaiko erraldoia eta giza-tekia egingo da Kale Nagusian.

### Erakusketa

#### JALGI KAFE-ANTZOKIA

Maiatzaren amaiera arte  
Bizker-eko Patxi Unanueren argazki erakusketa izango da ikusgai.

#### MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 19-Osteazkena 14  
Lasarte-Oria elkarteak margo eta marrazki ikastaroko ikasleen lanak ikusgai.

## Herritarren txokoa

### Zabaletako I. Herri Krosa

Zabaleta auzoko festen baitan, maiatzaren 31ean, larunbata Zabaletako I. Herri Krosa antolatuta dute.

Goizeko 11:30ean Zabaletako plaza izango da irteera eta helmuga. Ibilbideak 5 kilometro izango ditu.

Izema ematea irekia dago dagoeneko. Inskripzioa auzoko dendan egin behar da, 3 euro oraindik; egunean bertan ere aukera izango da. Dortsalak lasterketa aurretik banatuko dira.

### Galdutako gauzak

Azkozteko Erromeria egunean Ttakun elkarteak kideak Quechua markako txaleko beltza, L tamainakoa aurkituzten arkupeko bankuetan.

Ttakunek bulegoan dago jantzia beraz galduta duenak harrera orduan jasoz dezake.

### Gure Esku dago

Gure Esku dago ekimenak ekainaren 8-an Durango eta Iruñea artean egingo duten giza katean Lasarte-Oriari dagokion kilometroan zure metroa erosi nahi baduzu, herriko taldeko kideak ostiraleko Okendo plazan izango dira arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara.

"Ez zaitetz lekurik gabe geratu Euskal Herriaren historiako une garrantzitsu eta berezi honetan, etorri bizkor!"

### Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira.

Erketz-eko Lagunak taldeak astartetan dituzte saioak eta Erketz EDT-ko kideak, berriz ostegunetan.

Entseguak Zumaburu ikastetxeke gimnasioan dira, 20:00etatik aurrera ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gaztetxoek ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi dutenak 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

### Marrakzi eta margo klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkarteak jakinarazten du, marrakzi eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela. Klaseak asteazken eta ostiraletan dira, 18:30etik 20:30era Manuel Lekuona kultur-etxeko 2. solairuan. Interesa duten herritarrek gerturatu daitezela klase orduetan.

## Sarean

### Euskal Albistek zure mugikorrean



Egunean egotea gustuko baduzu! Albistek zure mugikor edo tabletan irakurtzeko ohitura baduzu, hona hemen aplikazio berria, EuskALBISTEAK!. Aplikazioa iPad eta Android-erako eskuragarri dago.

Euskaraz idatzitako albistek konsultatzeko aukera ematen du aplikazio honek.

Berriak, iturri ezberdinetatik etengabe automatikoki argitaratzen dira eta bertan izango dituzte zuzeneko.

Gainera, gai antzeko zerrenda dauka aplikazioak erabiltzaileek nahi dituzten arloko albistek irakurri ahal izateko: politika, ekonomia, kirolak, euskara...

Irakunduz eta iturri berriak proposatzeko aukera ere dute erabiltzaileek gogoko dituzten iturriak txertatzeko.

Bertan TXINTXARRI aldizkari berriak irakurri ahaliko dira. Bestela, gogoratu!!! [txintxarri.info](http://txintxarri.info) web orrialdean ere irakurri ahal dira.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 [txintxarri@txintxarri.info](mailto:txintxarri@txintxarri.info)

# Udaberriari atekak zabalduko dizkio Aterpea elkarteak

Ostiraleko Udaberi festan dende kalera aterako dituzte produktuak eta eskaintzak

*Ostiral eguerdian Aterpea eta udaleko ordezkariak aurkeztu zuten Udaberriko festa. Maiatzaren 16an, ostiralean, dende kalera aterako dituzte euren produktuak eta elkarteak kide diren tabernei euro leian izango dituzte pintxo eta kafeak. Ekimenak herriko merkataritza sustatzea du helburu eta udalak babes osoa eman dio. Hirugarren sektorea herrian zaindu eta indartzearen garrantzia azpimarratu zuen bide batez Pablo Barrio alkateak. Aterpeatik herriarrek ekimenean parte hartzeko deia egin zitzaion.*

## TXINTXARRI

Ostiralean herriko dende "Udaberriari atekak zabaldu" nahi dizkiote eta horretarako antolatuta dute Udaberriko festa.

Ekimena Aterpea merkataritza eta ostalarien elkarteak eta Udalak sustatutako da. Aurkezpenean Ramon Ormazabal Aterpeko lehendakariak esan bezala, herriko merkataritza sustatzeko ekintza bat behiago da.

Egun honetan Aterpeko kide diren 26 dende euren produktuak dendetatik aterata eta kalean jarriko dituzte salgai. Tabernen kasuan, euro batean edukiko dituzte kafeak eta pintxoak, eskaintza izango dutenak Arkupeta taberna, Galizia, Buenetxea, Guria eta Andatxa izango dira.

Denda askok deskontuak eta eskaintza bereziak ere izango dituztela azpimarratu nahi izan zuen Ormazabalek aurkezpenean. "Pagotxak topatzeko aukera egongo da eta denda bakoitzak zerbait berezia eskainiko du egun horretan". Adibidez, lurrin egokiena aukeratzeko aholkularitza zerbizua egongo da, tresna informatikoen aurkezpenak, produkten dastetzea... besteak beste.

## Egun osoko jaiak

Esan behar da, aipatutako aukeraz gain, herria egun osoan festa handia izan dadin, beste hainbat ekintza gozatzeko aukera ere izango dela.

Horrela izanda, Okendo plazan 18:00etatik 21:00etara haurrentzako puzgarriak jarriko dira, Zirko berezia antolatuta du Alcarrek Oriamendi plazan 17:30etatik 20:00etara. Ventanas ISUK antolatuta Andapa plazan moten kontzentrazioa izango da 19:00etan.

Urruzola denda berri, Piritx eta Porrotx pailazo maitatuak egongo dira 17:00etatik 18:00etara beraiekin argazkia aterata euren sinadura nahi duten haurrekin egoteko. Eta azkenik, haurren marrazki lehiaketa burutuko da Zumaburu liburutundean 17:00etatik 19:00etara. Honetan parte hartu ahal izango dute nahi duten haur guztiak.

Arratsaldean zehar, jai giroa nagusi izan dadin, Amalur trikiti eta pandero eskolako kideek girotuko dituzte herriko kaleak.

## Herriko merkatarien alde

Pablo Barrio alkateak herriko merkataritza bulbatzearen garrantzia hitz egin zuen



Ostiralean egindako agerraldian Aterpeko hainbat kidek parte hartu zuen.

agerraldian eta Aterpekoie eskerrak eman zizkien azkenaldian egiten ari diren lanagatik. Azken hilabeteetan elkarlanean asko dira garatuak ekimenak eta horrek suposatzen duen antolaketak lana aipatu zuen.

Alkatearen esanetan "guretzat Lasarte-Oriako hirugarren sektorea indartzea ezinbestekoa da, azken finean sektore hau baita gure ekonomia eragile nagusia".

Eskualde mailan garapen agentzia sortzeko lanetan ari direla gogoratu zuen ere, "duela hilabete aurkeztu genituen Udaleko aurkeztutako eta bertan gure herriko egoera ekonomikoa suspentzeari begira bi arlo garrantzitsu azpimarratzen genituen: batetik eskualde mailako elkarlana eta horretarako ari gara lanean Eskualdeko Garapen Agentzia baten sorreran, eta bestetik, gure

udalerriko 3.sektorearen aktibazioa".

Alkatearen ustetan merkataritza indartu bato oso onuragarria da sektore honentzako eta "behar den guztian laguntzeko prest gaude".

Udalak elkarteak kide guztiak egun horretarako beraiekin erakusketak kalera aterata ahal izateko, zoru publiko okupatzeko baime-

na eman die alkateak azaldu zuten bezala.

Maiatzaren 16an merkataritza erakusleho handi bat bihurtuko da Lasarte-Oria eta honetan herriarrek parte hartzea espero dute.

Ormazabalek ekintza honen hedapen eta sustapenean erakunde ezberdinek eskaintako laguntza ere azpimarratu nahi izan zuen agerraldien amaieran.



Udaberriko festarako prestatutako irudia.

**BIKAIN** Okindegi, Gozotegi eta Kafetegi

**Adarragako tartak ekartzen ditugu**

**Zumaburu atzekaldea 3 Lasarte**

**Tel.: 943 249116**

Ostiraleko  
1,5€

Arrotsaldero  
1,35€

PINTXO  
GOXO